

txintxarri



Orekari eutsi nahian

Emakume Sortzaileen I. Jardunaldia aurrera eramán du Ihitten elkarteak, bost herritarren bizipenak jasotzeko / 9

TXINTXARRI

Sanpedroetako egitaraua, prest!

Udalak, herriko zenbait eragilerekin batera, ate joka ditugun San Pedro Jaietako programa aurkeztu du / 2

PSOE izan da alderdi bozkatuena udalerrian, Europako Parlamenturako hauteskundeetan / 4

Lasarte-Oria eta Boise hiria senidetu dituzte Xumela eta Biotzetik koruek, elkartrukea eginda / 6

Gailu digitalen erabilera goiztiarraz hausnartu dute Telmo Lazkano adituarekin / 7

'Gracias', 'Mundu zitalaren kontra' eta 'Mikroipuinak' lanak ezagutu dituzte lasarteoriarrek / 8

Donostia Arraun Lagunak, Euskadiko txapeldun; Lekeitioko ikurrina, aldiz, Hondarribiarentzat / 10

Buruntzaldea IKTo zein herriko igerilariak ederki lehiatu dira proba ezberdinetan / 11

zitek
zientzieskola

Beti zuei laguntzeko prest!

Goikale Kalea 12, behea.
Lasarte-Oria. 943-36 31 06
info@zitek-akademia.com
www.zitek-akademia.com

Laguntza taldeak
Ikasketa teknikak
Mekanografia

2024-2025 IKASTURTEA
(irailaren 2tik aurrera)

Gorde plaza eta aukeratu eskolen ordutegia

· LH - DBH -
BATXILLERGOA - ZIKLOAK
· Zientziak | letrak

· HIZKUNTZAK: ingelera eta Frantsesa

2024 UDAKO IKASTAROAK
(uztailaren 1etik aurrera)

Elkarlanean prestatu dutena iragarri dute

Udalak, herriko zenbait eragilerekin batera, ate joka ditugun San Pedro Jaietako egitaraua aurkeztu du. Horrekin batera, jaietako aurrekontua ere ezagutarazi du; 277.662,69 eurokoa da eta erdia baino gehixeago musika taldeak eta teknikariak kontratatzeke izan da

Txintxarri

San Pedro Jaietako egitaraua aurkeztu du, berriki, Lasarte-Oriako Udalak; ondoan izan ditu hori osatzeko lanetan parte hartu duten herriko hainbat eragile ere. Festak saileko zinegotzi Txus Alonsok hartu du ekimenen berri emateko ardura, eta, esan, aurreko urteetako en egitura bera jarraitzen duela aurtengoak ere, nahiz eta "aldaketa txiki batzuk" egiten dituzten urtez urte. Guztira 99 jarduera aurrera eramango dira aurtengo festetan.

Festa egun ofizialei hasiera eman aurretik, aurrekari izango diren ekimenak aurkeztu ditu; herri eragileek antolatzen dituzte horiek, hala nola, mahai jolasen, gimnastika eta lerroko dantzen erakustaldiak, edota Alboka koruaren eta Erketz EDTaren emanaldiak eta Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertuak. Gogoan izan du baita ere, LOTMEk aurrera eramango duen mendi irteera. Ez du egitarau osoaren aurkezpena egin;



Udal ordezkariak eta herriko eragileak egitarauaren berri emateko agerraldian. TXINTXARRI

eguneguneko jarduera batzuk iragarri ditu. Dena den, hilaren 21eko aldizkarian emango du egitarau osoaren berri TXINTXARRI aldizkariak.

Hainbat xehetasun

Herriko hiru plazatan egingo dituzte, aurtengo ere, kontzertuak: Okendo, Isla eta Jaizkibelen. Mu-

sika emanaldi nagusiak ekarri ditu gogora. Okendo plazan izango da ETS festen lehen egunean, hilaren 28an, eta, egun bat geroago, Bulego eta Star Ways-en txanda izango da. Hilaren 30 arratsaldean, Maruja Limon arituko da oholtza gainean, eta horren ostean Alargun Beltzak.

Uztailaren 1ean, astelehenarekin, Belakoren kontzertua izango da, eta sanpedroei amaiera emateko, uztailaren 2an erromeria Oxabiren eskutik.

Isla plazakoei dagokienez, hiru hitzordu izango dira. Hilaren 28an, Ibai Berriak herriko taldeak girotuko du arratsalde-iluntzea. Hurrengo egunean, Estrella Central orkestra ariko da, eta uztailaren 1ean Styloren txanda izango da.

Jaizkibel plazan, berriz, I Love 80's Band taldearen emanaldia izango da hilaren 28an, eta 29an, berriz, Carlos Jean DJak girotuko du gaua. Uztailaren 1ean, astelehenarekin, Stereo Rock herriko musika taldea ariko da jendaurrean.

Urteroko haurrentzako parkeak mantendu dituztela ere iragarri du, eta, nabarmendu, horiekin batera, iaz lehenengo aldiz eskainitako gazteentzako jolas eremua indartuko dutela aurtengo ere. Uztailaren 1ean, goizez zein arratsaldez aurrera eramango den ur parkea ere izan du ahotan.

San Pedro Jaietan ohikoak diren emankizunak ere ez dute hutsik egingo aurtengo ere; horien artean daude, herri kirolen erakustaldia, Nafarroako jotak, maria-txiak, bertso jaialdia, Dinbi Banda batukada taldearen saioa, goizean goizeko zezenak eta haur zein helduentzako antzerki emanaldiak.

Oriarte-Landaberri ikastetxeko patioa gazteentzako kokaleku

bilakatuko da aurtengo ere; espazioak eta bertako egitarauak "onespen handia" duela azpimarratu du Alonsok, eta hori ahal izanik, DJ sesioez gain, herriko artisten saioak ere izango dira aurtengo ere.

Aurtengo berrikuntzak

2024ko sanpedroetako egitarauak izango ditu zenbait berrikuntza; horien artean Ibai Berriak taldeak gauean ez arratsalde-iluntzean eskainitako duela emanaldia eta hilaren 30ean aurrera eramango den DJ Nikoren saioa. Txakurrek ere protagonismoa izango dute aurtengo festetan. Xuhakan elkarrekin eskutik, aipatu animalia horien erakustaldia egingo dute.

Eta Atsobakar parkean kirol eremu berria eraikitzeke aurrera eramaten ari diren lanen ondorioz, aurtengo su artifizialen erakustaldia lekuz aldatu behar izan dute; Andatza plazan izango da eta tamaina txikiagoa izango du.

Lasarte-Oriako eta Hernaniko Udal Musika Eskoletako ikasleen elkarrekin aurrera eramango duten batukada saioa ere berrikuntza izango da aurtengo. Hilaren 28 goizean izango da hori.

Aurrekontua ere ezagutarazi du; 277.662,69 euro erabili ditu erakundeak sanpedroetarako. Kopuru horren zatirik nabarmenena, % 54, musika taldeak eta teknikariak kontratatzea bideratu ditu udalak.

Informazio osoa www.txintxarri.eus web atarian topa dezakezue.

Makelur taldea omenduko dute

Argitu du Lasarte-Oriako Udalak aurtengo sanpedroen bueltako misterioetako bat, omendua nor izango den. "Herriko emakumeen alde egiten duten lan guztiagatik", Agustín Valdivia alkateak adierazi duenez, Makelur antzerki taldea aintzatetsiko dute aurtengo festetan: hilaren 28ko arratsaldeko txupinazoa jaurti eta pregoia irakurtzeaz gain, hurrengo egunean omenaldi instituzionala jasoko dute kultur etxean. Emakumearen Zentroaren altxoan sortutako eragile horretako kideek nabarmendu dute "ohorea" dela aitortza hori jasotzea. Hamalau kide dira gaur egun, belaunaldi desberdinetakoak: 40-45 urtekoetatik 80 urtetik gorakoetara.

Hemezortzi urte bete berri dira talde sortu berriak *La boda* antzezlanarekin ibilbide oparo

bat ekin zionetik: 2006ko ekainaren 1ean estreinatu zuten aipatu lan hori, Arantzazuko Ama elizan. Lau egun geroago argitaratutako aldizkarian jaso genuenez, "performance dibertigarri" gisa definitu zuten egindakoa eta "urduri" zeudela obra estreinatu aurretik, parroquia horretan aritu ziren hamahiru kideetatik gehienentzat "lehenengo esperientzia" izan zelako. Beste hamasei lan estreinatu dituzte ordutik, azkena, aurtengo Emakumearen Nazioarteko Egunean: *Escuela de princesas*.

Omendua hautatzeko prozesuaren nondik norakoak azaldu ditu Jaietako zinegotzi Txus Alonsok. Parte hartze prozesu bat abian jarri zuten otsail amaieran eta horren bitartez hermeretzi proposamen jaso zituztela zehaztu du. Ondoren, Udal Gobernuak osatzen duten



TXINTXARRI

kideetako bakoitzak botoa eman eta erabaki dute Makelur omentzea aurtengo ere. "Lan zaila izan da, hautagai guztiak merezi dutelako horrelako aitortza bat".

Makelurreko kideek pozarren jaso dute albisteak eta hilaren 28ko txupinazorako nahiz

29ko omenaldirako prestatzen ari dira. Udal ordezkariak esan diete espazioak ongi egokitzeke: "Asko izango gara!".

Hilaren 21eko aldizkarian taldearen ibilbideari buruzko erreportaje bat argitaratuko dugu.

Lehena balitz bezala egingo dute hamargarrena

Vespa eta Lambretta marketako motorren topaleku bilakatuko da Lasarte-Oria aurten ere. Scooter Club Euskadik egitarau oparoa prestatu du hamargarren aldia aurrera eramateko; bertako kideak batzen dituen pasioaz gozatu eta herritarrei erakusteko

Txintxarri

Kilometro asko egin dituzte (Scooter Club Euskadik 25 urte beteko ditu datorren urtean), baina gasolina ez zaie amaitu oraindik. Kontrara, lehen aldiko ilusio berberarekin jarraitzen dute jarduerak antolatzen han eta hemen. Horren adibide, Lasarte-Orian gaurtik etzira arte (hilaren 14tik 16ra) egingo duten rallya. Hamargarren aldia izango da; aurrenekoa 2015ean aurrera eramane zuten.

Egitasmo horrek "harrera oso ona" izan du lehenengo alditik, antolatzaile taldeko kide diren Isabel Lopez eta Ramon Anguiak azpimarratu dutenez. 80 eta 100 motorzale elkartu ohi dira (120 ere bai urteren batean), Euskal Herrikoak ez ezik Espainiar Estatuko beste hainbat tokitakoak ere bai. Elkartzen dituen pasioaz gozatzeko aste-bete pasatxo falta denean, herriko bi hotelak beteta daudela esan dute. "Etortzeko asmoa duen batek baino gehiagok esan digu ezin izan duela logelarik erreserbatu; den-dena ez da guk egingo dugun rallyagatik izango, baina herriari bizia ematen dio eta jarduera ekonomikoa bultzatzen du".

Urteotan guztiotan norbanako, eragile, babesle eta erakundeak



Scooter Club Euskadikoek orroigarri bat eman diote udalari. TXINTXARRI

izan ditu lagun Scooter Club Euskadik. Horietako bat izan da Lasarte-Oriako Udala eta elkarrekin egindako bideagatik esker ona adierazteko, orroigarri bat eman diote erakundeari: Agustin Valdivia alkateak eta Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonsok jaso dute. Herriagatik egiten dutena eskertu diete udal ordezkariak eta gutxienez beste hamar urte gehiagoz elkarlanean jarraitzea opa.

Motorrak berotzeko (inoiz baino hobe esanda), zenbait motor jarri dituzte herriko zenbait

komertzioren erakusleioetan. "Rallya hastear dela iragartzeaz gain, herritarrak erakartzen ari da tokiko saltokietara".

Ibilaldiak, erakusketak...

Urtero bezala egitarau oparoa prestatu du Scooter Club Euskadik rallya ospatzeko. Gaur arratsaldeko 19:00etan elkartzen hasiko dira Santxo taberna kanpoaldean eta igande eguerdira arte ez dira geratuko: ibilaldiak, motorren erakusketak, kontzertuak, festa, jokoak... Programa osoa 15. orrian irakur dezakezue.



NEURE KABUZ
ASIER ODRIOZOLA

Gerrak, festak, eta abar

Ekainean sartu gara eta horrek San Pedro Jaietarako bidea alda-behera jartzen du. Umetan, hil honetan sartu eta ia-ia festetan ikusten genuen gure burua. Denborarekin sugar hori apaldu egin da eta jaietako egunetan gaude jaietan, ez aste batzuk lehenago. Lastima da baina haurtzarotik urrutzeak dituen aje askotariko bat da hori. Baina egia da, han, denbora-distantzia ertainean txupinazoa nabari dudala. Horrekin batean ordea albisteei erreparatu gero, gerra kontua besterik ez da han eta hemen. Aspal-ditik, Ukraina eta Errusiaren artekoa. Berriagoa, Israel eta Hamasen artekoa (hori gerra bat baldin bada, kontuan hartuta aldeetako bat bestea mastrakutzen ari dela, jende armatua bai baina baita haur, emakume, aiton-amona, osasun langile, giza erakundeetako langile, kazetari eta zerrenda ixte aldera, bonben azpian harrapatzen duten guztia ere).

Hori dena gutxi ez eta lozorroan egon izan diren tentsio batzuk esnatzen hasi dira, aipatutako beste bi gerra horiekin animatuta, nonbait. Hor dira Txina eta Taiwanen arteko gatazka eta berdin bi Koreak banatzen dituen ere, iparrekoa eta hegoaldekoa. Nahita aipatu ditut elkarrengandik hain urrun dauden bi kontzeptuak, gerra eta festak, izan ere, harrigarria da gizakiak duen, gizakiok dugun, isolamendurako ahalmena eta trebezia. Onartzen dugu gerraren inpaktua, baina, ahal dela, eguneroko bizitza atseginari eutsi nahi diogu.

Ez dakit ez ote dugun uste modu horretan urrun jarraituko duela gatazka. Hala izatea espero dut, baina ezin da baztertu tiro eta bonba hotsak hurbilago ditugunean, harriduraz ikustea egoe-ra hori, eguneroko kezka txikiengan bizitzen jarraitu nahi izan dugulako. Zer egin beharko genuke, beraz? Ez dut arrastorik ere, baina iruditzen zait ez genukeela ostrukarena egin behar.

Ipuin eta jolas artean, gustura

Maria Garcia Loderu ipuin kontalaria izan da Arrieskalleta elkartean eta ipuin nahiz jolas txokoa egin du bertaratutako diren familietako guraso eta haurrekin. Antolatzaileek nabarmendu dute "oso giro goxoa" sortu dela saioan zehar. Txokolatea jan dute gero.



ARRIESKALLETETA

Ttakun
Kultur Elkartea

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

30 EUROKO BONUA ZOZKATUKO DUGU!

PATXI LARRAÑAGA HARATEGIAN ERABILTZEKO

Eman izena ekainaren 23a arte (barne)

harpidetza@ttakun.eus | 943-37 14 48 | 646 82 44 66 (whatsapp)

2. Eskuko testuliburuen azoka

Adi!

DBH3 - DBH4 - BATX1 - BATX2

Entrega eguna	Ekaina 24 16:00 / 18:00
Liburuak erosi	Ekaina 25 16:00 / 18:00
Dirua jaso	Ekaina 26 16:00 / 17:30

ORIARTEKIDE
Guraso Elkartea

Tokia: Larrekoetxe eraikinean

PSOE izan da alderdi bozkatuena udalerrian

Abstentzioa hamazazpi puntu hazi da (%52,4), hau da, botoa ematera deituta zeuden 14.804 herritarretatik erdiak ere ez dira joan hauteslekuetara. Buruntzaldeko gainerako bost herrietan EH Bildu izan da lehen indarra eta Gipuzkoan ere bai

Txintxarri

Europako Parlamenturako hauteskundeak egin zituzten hilaren 9an eta botoen %100 zenbatuta, PSOE izan da alderdi bozkatuena udalerrian, bozken %35,6arekin (2.503 botopaper). Duela bost urteko bozkekin alderatuta nabarmen igo da abstentzioa, hamazazpi puntu; hautetsontzietara deituta zeuden bizilagunen erdiak baino gehiago (%52,4) ez dira joan. Orotara 7.048 bizilagunek eman dute euren iritzia.

Orain Errepublikak koalizioaren barruan aurkeztu den EH Bildu izan da bigarren indarra udalerrian, 1.911 botorekin (duela bost urte 1.990 erdietsi zituen). Hirugarren indarra CEUS koalizioaren baitan joango den EAJ izan da, 898 bozkekin (2019an 1.647 lortu zituzten jeltzaleek). Botoetan gora egin duen alderdi bakarretakoa PP izan da (707 gaur eta 493 duela bost urte). Sumarrek 262 paper bildu ditu, eta, Podemosek, 214 (jaitsiera nabarmena izan du, ia 900 botokoa). Alderdi ultraeskuindarrek, VOXek eta Se Acabo La Fiesta-k, 328 botopaper bildu dituzte, 179 eta 149, hurrenez hurren.

Eskualdeko gainerako bost herrietan (Andoain, Astigarra-

ga, Hernani, Urnieta eta Usurbil) EH Bildu-Orain Errepublikak izan da alderdi bozkatuena. Gipuzkoan ere koalizio subiranista izan da lehen indarra, botoen %34,5 bilduta. PSOE izan da bigarren (%23,9) eta EAJ, hirugarren (%20,7). Lasarte-Oria bezala, parte hartzea oso baxua izan da lurraldean, %50,09. Duela bost urte %63,2koa izan zen.

Zortitik sei, PSOErenak

Europako Parlamenturako bozetako zortzi hauteslekuetako datuak eskuratu ditu TXINTXARRI-k, udalaren bidez. PSOE izanik botopaper bildu zituen alderdia udalerrian (2.503, orotara), ez da harrizkoa gune gehienetan ere alderdi sozialista nagusitu izana: Kultur etxea, Zumaburu, Sasoeta ikastetxea, Basaundi, Sasoeta eta Garaikoetxea. Udaltxean eta Liburutegi Zaharrean, berriz, EH Bildu izan da lehenengo indarra.

Herritarrek hautetsontzietan utzitako 7.048 botoetatik 24 izan ziren baliogabeak; zuriak, berriz, 35. Bestela esanda, hautagaitza aurkeztu zuten zerrendek 6.989 bozka jaso zituzten denera.



Hauteskunde hauetan 7.048 herritarrek bozkatu dute. TXINTXARRI



“LEINN niretzat, hazkunde pertsonalerako tresna bat izan da eta etorkizunean zer nahi dudana erabakitzeke balio izan dit”

NIKOLAS ESTEBAN ALKIZA

Herria: Lasarte-Oria Gradua: Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) Graduako 3. Maila



-Nola definituko zenuke LEINN hitz batean?

Apurtzailea. Ezarrita dagoena haus-tan duen irakaskuntza-eredu berria da, modu praktikoa ikasten duzu, ikasi behar duzun guztia eginez eta mundu erreala eramanaz.

-Zer esan nahi du zuentzat proiektu berri bat sortzeak? Nondik sortu zen Olatu Berdea Mobility proiektua?

LEINNe ideiak eta proiektu berriak sortzeko ingurune bat ahalbidetzen dizu, proiektuak sortzeko gogoia duen talde batekin eta egiten dugun guztiari balio sozial bat emanez. Horretaz gain, entrenatzaileen, mentoreen eta aholkularien laguntza dugu. ‘Olatu Berdea Mobility’ Berlinen sortu genuen, LEINN hasi eta bi hilabetera egindako bidaiari esker. Berlinen mugikortasun sistema interesatzen zigu. Bertan, patineteek, motorrek eta bizikletek sistema elektriko partekatu bat osatzen dute. Unibertsitatera joateko probatu genituen eta eguneroko erabilera eroso zela konturatu ginen. Etxera bueltatutakoan, galdera hau egin genion gure buruari: “Zergatik han sistema jasagarri bat

erabiltzea hain erraza eta eroso zen eta hemen ez?”. Beraz, mugikortasunaren egoera eta herritarren arazoak aztertzen hasi ginen, Donostia eta Irun bezalako hiriekin lan eginez. Gainera, munduko hainbat lekuetako mugikortasuna aztertzeko hainbat espedizio prestatu genituen, Costa Rica, Hego Korea (Seul), India eta AEB (New York eta Boston). Esperientzia horietatik, mugikortasun sektorean sakontzen hasi ginen eta gure mugikortasun sistema jasagarria sortzea erabaki genuen, eredu kooperatibo batekin.

Horretaz gain, Mondragon City Challenge nazioarteko ekintzailetza kooperatiboaren lehiaketara aurkeztu ginen eta, zorionez, gure proiektuak irabazi zuen eta horrek urte hasieran Estatu Batuetara bidaiatzeko aukera eman zigun.

-Kontatu proiektuaren inguruan egin duzuen akats bat eta bertatik ikasitakoa.

Gure akatsik handiena, momentu batzuetan, egiten genuen lanarekiko konfiantza ez izatea eta proiektua eskalatzeko gai ez girela sinestea izan da. Horrek beldurra sortu digu eta, ondorioz, gutxi arriskatu genuen.

Ondorioz, behar baino motelago egin dugu aurrera proiektuarekin.

-LEINNe taldean handietan ikasten duzue, ‘team company’ delakoan. Zer ikasi duzue zure taldekideengatik?

Gure proiektuan, bakoitzak nortasun, gaitasun eta indargune oso desberdinak ditu; beraz, gure bilakaera eta berrikuntza ahalbidetu diguna, pertsona desberdin eta osagarriak izatea eta batez ere, lanetik kanpo oso harreman ona izatea izan da.

Proiektuarekin konektatzeaz gain, elkarren artean konektatzen dugu eta giro positibo eta motibatzaile batean lan egiten dugu.

-Nola eraldatu du LEINNe zuen bizitza?

18 urterekin, ikastolatik ateratzen zarenean, zaila da gero zer egin nahi duzun argi izatea. LEINN niretzat, hazkunde pertsonalerako tresna bat izan da, neure burua ezagutzeko, mota guztietako jendea ezagutzeko, mundua eta kultura desberdinak ezagutzeko, nire indargune eta ahulguneak aurkitzeko eta etorkizunean zer nahi dudana erabakitzeke balio izan dit.



Alderdi gehienek 2019an baino boto gutxiago jaso dituzte. TXINTXARRI



Ezker-eskuin: Jon Antxordoki, Irene Urruzola, Haizea Elvira eta Iñigo Gonzalez, sari banaketa ekitaldian. TXINTXARRI

Irene Urruzola eta Haizea Elvira izan dira irabazle

Maiatzean zehar aurrera eramandako galdera lehiaketako sariak banatu dituzte Lasarte-Oriako Udalak eta TXINTXARRI aldizkariak. Udalerriko toki izenen garrantzia ikusaraztea helburu duen elkarlan egitasmoaren baitakoa izan da ekimen hori

Txintxarri

Toponimoek edo toki izenen informazio asko ematen digute eta uste duguna baino praktikoagoak dira. Balio dute, esate baterako, sari banaketa ekitaldi baten lekua zehazteko. Izan ere, saridunak eta antolatzaileak nola elkartuko lirake bestela?

Maiatzean zehar udalerriko toponimiari buruzko galdera lehiaketa bat aurrera eraman zuten Lasarte-Oriako Udalak eta TXINTXARRI aldizkariak, jakintza alor horren garrantzia ikusarazteko egiten ari diren elkarlan egitasmoaren barruan. Hiru astetan zehar gauzatu zuten, horietako bakoitzean toki izenei buruzko hamar galdera eginda jokalariei. Den-denak asmatu zituzten artean egindako zozketan, Irene Urruzolari egokitu zaio Nekatur Nekazal Turismo Elkartearen zerrendan daudenetako nekazal etxe batean gaua igaro eta gosaltzea. Bestalde, parte hartzaile guztiei egin-

dako ahalegina eskertzeko, Avenida taberna-jatetxeko bi menu ere zozkatu zituzten antolatzaileek eta Haizea Elvirak irabazi ditu. Banaketa ekitaldia Okendo plazan egin zuten eta sustatzaileen izenean udaleko Euskara saileko zinegotzi Jon Antxordokik eta TXINTXARRI-ko arduradun Iñigo Gonzalezek eman zizkieten sariak aipatu bi herritarrei.

300 jokaldi baino gehiago

Antxordoki eta Gonzalez pozarren daude aipatu galdera lehiaketa horrek herritarrengan izandako harrerarekin. Jakinarazi dute parte hartu duten herritarrek 300 jokaldi baino gehiago egin dituztela hiru astetan eta egi-

LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN HERRITARREK 300 JOKALDITIK GORA EGIN DITUZTE

tasmoak jokalarien ahotan jarri duela Lasarte-Oriako toponimia, batez ere, galderen erantzunen bila ibili zirenean www.toponimia.lasarte-oria.eus atari digitalen. Bidenabar, nabarmendu dute gisa horretako ekimen ludikoek toki izenena bezalako jakintza alorrak sustatzeko duten balioa eta aurreratu antzeko joko bat prestatzen ari direla urrirako.

Lehiaketak ez ezik, beste eduki mota batzuk prestatzen ari dira antolatzaileak, hala nola, eskuineko aldean irakur dezakezen artikulu bereziak, *Toponimiaren txokoa* deitutakoak. Lasarte-Oriako zenbait toki izen nabarmentzen ari dira pieza horietan, hilabete bakoitzean herrian aurrera eramaten ari diren ekimen bereziei erreferentzia eginda. Aurrenekoan toponimiari buruzko azalpen orokorrak eman zituzten, eta, bigarrenean, Azkorteke baselizara joateko bidean dauden lekuengan jarri zuten arreta.

Toponimiaren webgunea zure eskura:
toponimia.lasarte-oria.eus
LASARTE-ORIAren ondarea



Gidariak korrika joaten ziren autoetan sartzera. RICARDO MARTIN/KUTXATEKA

Zirkuitu ibilbidea eta Tribunak kalea, azpiegitura historiko bat oroitzeko

Scooter Club Euskadi elkarteak Vespa eta Lambretta markako motorren rallya aurrera eramango du ostiraletik igandera, hilaren 14tik 16ra. Besteak beste, ibilbide labur bat egingo dute herrian barrena igandean, nondik eta Oriauzoan dagoen Zirkuitu ibilbidetik abiatuta. Bertatik irtezea ez dute kasualitatez erabaki egitasmoaren antolatzaileek, izan ere, toki izen horrek XX. mende hasierako azpiegitura historiko bati egiten dio erreferentzia, Lasarteko Zirkuitua izenez ezagutzen zenari. 1923. urteko uztailean hasi ziren lasterketak jokatzeko bertan eta 18 kilometro pasatxoko luzera zuen: Lasartez gain (garai horretan gure udalerrria ez zen independentea oraindik), Andoain, Hernani eta Urnietara zuten. Oriauzotik abiatzen ziren automobilak, Andoaindik igarota Urnietara iritsi, Hernani igaro eta Oriara itzuli, bertan helmugaratzeko.

Esan bezala, 1923an hasi ziren lasterketak jokatzeko bertan, besteak beste, San Sebastian Saria edota Espainiako Sari Nagusia. Orotara 26 proba aurrera eraman zituzten 1936ra arte, Gerra Zibilagatik jarduna eten behar izan zuten arte. Lau urte geroago berriz jarri nahi izan zuten martxan, baina sustatzaileen asmoak zapuztu zituzten II. Mundu Gerrak.

Lasarte-Oriako Udalak toponimiari buruz duen atari digitalean erregistratuta ditu azpiegitura historiko horri erreferentzia egiten dioten toki izenak: Zirkuitu ibilbidea eta Tribunak kalea dira horietako bi. Aurrenekoaren era dokumentala 2004an erregistratu zuten aurreneko eta beste erreferentzia batzuk biltzen ditu, hala nola, Zirkuitu pasealekua eta Zirkuitu parkea. Bigarrenaren ere urte berean dokumentatu zuten lehenengoz eta zenbaitetan Tribunak izena soilik ere agertu izan da. Toponimo horrek zirkuituak zituen harmailei egiten die erreferentzia; bertatik jarraitzen zituzten lasterketak ikusleek. Kirol proba horiek sekulako ikusmina pizten zuten jendearengan eta Lasartetik nahiz inguruko herri edo hirietatik bakarrik ez, nazioartetik ere etortzen ziren.



LASARTE-ORIAren ondarearen webgunea

QR kode hau eskaneatuz gero, Lasarte-Oriako toponimiari buruz gehiago jakiteko aukera izango duzu.





Xumela eta Biotzetik koruetako kideek kuadrilla ederra osatu zuten. TXINTXARRI

Eztarrietatik "Biotzetara" joan dira kantuak

Lasarte-Oria eta Boise (Idaho, AEBak) senidetu ditu musikak eta euskarak. Egunpasa polita egin dute hemengo Xumela eta hango Biotzetik koruek; Getarian eta Pasaian izan dira, besteak beste. Arratsaldean emanalditxo polita egin dute Okendo plazan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Harrigarria da 8.000 kilometro baino gehiagotara dauden udal-erri eta hiri banatan bizi diren pertsonen zer-nolako gertutasuna erdietsi duten ordu gutxi batzutan: musikaren eta euskararen magia. Boise hiriko (Idaho, AEBak) euskal etxeko Biotzetik koruko 30 bat lagun Euskal Herrira etorri ziren hilaren 7an

eta ongietorri beroa jaso zuten gure herriko Xumela taldearen eta Ttakun Kultur Elkartearen partetik.

Ttakuneko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek azaldu zien euskara elkarteak 30 urte baino gehiago daramatzala hizkuntza horren alde lanean. Ostean, poltsa batetik atera zuten Biotzetik koruak Boiserara bueltan

eraman zuten oroigarria, txalaparta bat. "Eskerrak eman nahi dizkizuegu egin diguzuen bisitagetatik, entzun dadila txalapartaren ttakuna Boisen ere".

Hitzartzeen ostean heldu zen musikaren txanda. Xumelako kide Antton Garinek parte bat bertso bota zituen aurrena eta kantatzen hasi ziren gero: *Haurrak ikasazue* (Biotzetikek in-



Ttakun KEk oroigarri bat oparitu zien Boisetik etorritako lagunei. TXINTXARRI



Denbora gutxian harreman estua egin zuten. TXINTXARRI



Jana eta edana izan zuten partaideek Ttakunenea elkartean. TXINTXARRI

terpretatu zuen hau), *Epo i tai tai e, Txoria txori...*

Okendo plazako saioaren ostean kalejiratxoa egin zuten Ttakunenea elkarteraino eta *Ameri-*

katara joan nintzen abestu zuten atarian. Bukatutakoan, sartu eta pintxo-afari batekin sendotu zuten goizean egiten hasi ziren harremana.

Dantzarekin amaitu dute

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak hilaren 8an amaitu zuen 22. Antzerki eta Dantza Astea, adin guztietako dantzarien emanaldiekin, kultur etxeko auditorioan. Amaieran, eszenariora igo eta oroigarriak nahiz diplomak jaso zituzten ikasleek. Aurreko egunean *Gure garaia* antzeztu zuten DBH 1. eta 2. mailako gazteek.



TXINTXARRI

Gailu digitalen erabilera goiztiarraz hausnartzeko

Landaberri Guraso Elkarteak gonbidatuta, ongizate digitalean aditua den Telmo Lazkano izan da Oriarte-Landaberri ikastetxean. 'Gazteak eta gailu digitalak. Zeren aurrean gaude?' hitzaldia eskaini du. Hogeit bat ikus-entzule bertaratu dira



Gailuen erabilera goiztiarrek bezalako kezkatutako hogeit guraso batu dira. TXINTXARRI

Txintxarri

Sakelako telefonoek, pantailek eta sare sozialen erabilera nerabeengan duten eragina izan du hizketagai ongizate digitalean aditua den Telmo Lazkanok. Gailu horiek sortzen duten adikzio eta menpekotasunak kezkatutako Lasarte-Oriako gazteen hainbat guraso bertaratu dira solasaldira.

Sare sozialen negoziarioa zertan den kontatuz hasi du hitzaldia Lazkanok, eta mesfidantza eta fidatzearen arteko alderaketa bat egin du. Hori azaltzeko honako adibidea jarri du: "Ordainpeko edozein produktu erostera joaten garenean mesfidantza sortzen zaigu normalean. Gure buruari galdetzen diogu ea kalitate onekoak diren, prezioarekin bat datorren edota jatorri etikoa duen. Ziurtasun falta hori sortzen zaigu, batik bat produktu hori ordaindu egin behar dugulako". Zer gertatzen da, ordea, produktua musu truk eskaintzen zaigunean? Galdera hori plazaratu eta sare sozialak adibidetzat hartuta jarraitu du azalpenarekin; azpimarratu du mesfidantza desagertu egiten dela. Horri lotuta, gaineratu du gisa horretako produktuekin mesfidantza mantendu egin beharko litzatekeela. Horren gainean hausnarketa bideratzeko pare bat galdera aineratu ditu gero, hauek: Sortzen eta mantentzen hain garestiak diren aplikazioak zergatik eskaintzen zaizkigu, unero, gutako orori dohainik? Nola liteke zerbait urririk eskainita, enpresa horiek aberatsenen artean egotea? Marketin munduan oso ezaguna den esapide bati egin dio erreferentzia ondoren: "Produktua ordaintzen ez duzun unetik, zu bihurtzen zara produktu".

"Atentzioaren ekonomia"

Gaiarekin aurrera egiteko atentzioaren ekonomiaz mintzatu da. Horrek azaltzen du pantailaren aurrean zenbait eta denbora gehiago igaro, enpresa horiek are eta informazio gehiago eskuratzen

dutela, eta bildu dituzten datu horiei esker, erabiltzaileekiko eragin ahalmen handiagoa dutela: "Enpresa horientzako pantailetatik kanpo igarotzen dugun segundo bakoitza galera da". Gauzak horrela, gaineratu du zerbait finituarekiko (erabiltzaileen atentzioa) lehiakortasun sutsu batean murgilduta daudela, hau da, nork eskuratuko atentzio gehien.

Horrek guztiak nerabeengan, eta batez ere horien autoestimuan nola eragin dezakeen ere azaldu du, eta, esan, gazteak pantailen aurrean mantentzeko euren emozio desatseginez ahazteko nahiaz, euren fisikoa aldatzeko desiraz, maitatu eta maitatuak izateko beharrianaz, eta onarpen sozialaren bilaketaren beharrez baliatzen direla, eta horren guztiaren biktima nagusia gazte horien autoestimua dela azpimarratu du: "Alde batetik, nire benetako nia, eta sareetan erakutsi behar dudaniaren artean sortzen den amildegia; ez naizena, baina izan behar dudana onartua izateko. Nerabearoan auzi horri aurre egitea latzagoa bihurtzen du". Onarpen sozialari lotuta eta sare sozialei erreferentzia eginez, aipatu du jarraitzaile, atsegite, elkarbanatze eta iruzkin kopuruetan neurtzen dutela.

Erabiltzaileak pantailen aurrean mantentzeko orain arte existitu ez diren teknika teknologiko eta psikologikoak zeintzuk diren argitu du solasaldiaren bigarren atalean, eta honako hauek aipatu: koloreen erabilera, *Timing*-a, jakinarazpenak, *Scroll* amaigabea, logika algoritmikoa eta konduktismoa.

Neurologiaren arloaz ere aritu da, bertaratu diren ikus-entzuleei ulertarazteko zer gertatzen ari den nerabe baten buruan, gero pertsona horrek dituen kanpo ekintzak entenditzeko. Saioa amaitu aurretik, sare sozialen eztanda gertatuz geroztik horrek izan dituen ondorioak ezagutarazi ditu.

GIPUZKOA

Ekin.
Gipuzkoa oparagoa izateko.

Zaindu.
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.
Ondo eta duin bizi daitezen.

GIPUZKOA
Foru Aldundia



Lizar Begoñaren 'Mundu zitalaren kontra' landu zuten Antonio Mercero aretoan. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, Labandibar eta Torregarai, 'Mikroipuinak'-en aurkezpenean. TXINTXARRI



'Gracias' liburua ondu du Carmen Atalaya herritarrak. TXINTXARRI

Solasaldi edota aurkezpen, liburuak izan dituzte hizpide herrian

Hiru emakumeren eskutik beste hainbeste lan ezagutu dituzte lasarteoriarrek egunotan: 'Gracias' (Carmen Atalaya), 'Mundu zitalaren kontra' (Lizar Begoña) eta 'Mikroipuinak' (Idoia Torregarai). Lan horien nondik norakoak azaldu dituzte egileek

Maitane Aldanondo-Iñigo G. Sarobe

Literaturak tarte esanguratsua izan du berriki herriko kultur jardueren artean. Ostiralean, hilak 7, hitzordua bikoitza izan zen. Batetik, Carmen Atalaya herritarrak *Gracias* liburua aurkeztu zuen kultur etxeko hitzaldi aretoan; bestetik, Lasarte-Oriako Transmaribollo kolektiboak Irakurle Txokoa-ekin elkarlanean antolatuta, solasaldi literarioa aurrera eraman zuten Antonio Mercero aretoan. Dozena bat lagun elkartu ziren Lizar Begoña idazlearekin *Mundu zitalaren kontra* lanaren gainean aritzeko. Asteartean, berriz, hilak 11, Idoia Torregarai umoregile usurbildarrak eguneroko uneeetatik abiatuta sortutako *Mikroipuinak* lanaren nondik norakoak azaldu zituen kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Atalaya txakur hezitzailea, animatzaile sozio-kulturala eta Pedagogia ikaslea da. Bere bi-zipenetatik abiatuta idatzi du liburua, barnean duen "abertasuna" eta bizitza polita dela zabaltzeko. Esker oneko izateak norberak duena balioan jartzen laguntzen du, falta duen horretan pentsatu beharrean. "Daukaguna eta inguruan daukagun pertsona onak-eta eskertzea oso garrantzitsua da. Hori eginez gero, gauza zoragarriak gertatuko zaizkigu". Berak, kasu, "mirari asko" bizi izan dituela dio eta, era berea, gertakari txarretatik ere irakaspenak atera dituela.

Hautuen arrazoiak

Liburuan, bizi filosofia hori azaltzeaz gain, reikiari orri ugari eskaini dizkio. Terapia energetikoen barruko pseudozientzia

"barne eta gizarte garapenerako tresna" da Atalayaren esanetan, eta teknika horien bidez "maitasuna, bakea, enpatia..." ikas daitezkeela. Horrez gain, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak edota bidaide eta lagungarri izan dituen txakurrak ere ageri dira lehen lanean.

Kultur etxeko aurkezpena baino ordubete geroago, bestelako liburu baten gaineko iritzi trukeari ekin zioten Antonio Mercero aretoan. Lizar Begoñak 2022. urtean jaso zuen Igartza Sariari esker argitaratutako eleberria da, bi pertsonaien ikuspuntutik kontatutako istorio zatikatu bat. Irakurle Txokoaren kide ez zirenei dinamika berri eman zien Aintzane Usandizaga gidariak. Hala, irakurketak iradoki edo liburuari buruz nahi zutena esateko lehen itzuli bat egitea proposatu zien.

Egileak entzundakoaren zergatiak argitu, eta galderak erantzun zituen, hari horiei tiraka obraren berari edo sorkuntza prozesuari buruzko zenbait zertzelada emanaz.

Esaterako, kontakizuna zatikatzeak pertsonaien "bi belaualdien arteko arrakala erakusteko" interesak eraman zuen Begoña bi lekukotasunak paraleloan eta etengabe tartekatzen joatera, bien arteko kontrastea erakusteko. Hortaz, egilearentzat erronka izan zen "bien ahotsak eta ahozkototasunak, bakoitzak bere ahots propioa edukitzea".

Eguneroko mikroistorioak

Egunerokotasuneko uneeetatik "istorio politak" sor daitezkeela sinetsita, *Mikroipuinak* liburua argitaratu zuen martxoan Idoia Torregarai Martija kazetari, gidogile eta umoregile usurbildarrak, Elkar argitaletxearekin eta Patxi Huarte *Zaldieroa* komikigilearekin elkarlanean. Lasarte-Oriako Udal Liburutegiak kultur etxeko hitzaldi aretora gonbidatu zuen egilea hilaren 11n lan horri buruzko nondik norakoak azal zituzan. Bertsolari baten pare jardun zen, aurkezpen ekitaldian dinamizatzaile Goiatz Laban-

dibar Arbelaitzek botatuko puntuei jarraituta.

Twitter (gaur egun, X) sare soziala erabiltzen hasi zenean, duela hamarkada pasatxo, *#mikroipuin* traolak berehala gaitatu zuen Torregarai eta 140 karaktere baino gutxiagoko kontakizunak idazten hasi zen. "Segituan konektatu nuen horrekin, ongi doitzen zen nire idazkera eta umoreira; nire sormena kanalizatzeko modua topatu nuen". Sortu zituen istorioak plataforma horren eskuetan uztearekin konforme ez eta nolabait ere partekatze-formularen bila hasi zen, autoedizioan pentsatzen. Bere "aurpegi guztiarekin", Zaldieroarekin eta Elkarreko editore Xabier Mendigurenekin jarri zen harremanetan eta gustatu zitzaizen proposamena. 600 mikroipuin zituen jasota egileak eta haiekin kontrastatu eta gero, 150 argitaratu ditu. "Asko" gustatzen zaio *mikro* hitza, erakutsi nahi duenaren neurrikoa delako: "Bizitza arrunta erakustea gustatzen zait, gauza politak egin ditzakegu horrekin. Errorea, umorea, egunerokotasuna... Horixe naiz ni, horrelakoa da nire bizitza".



Ezker-eskuin: Garzes, Salsamendi, Usandizaga, Egizabal, Izagirre eta Negueruela. TXINTXARRI

Egunerokoaren orekariak

Emakume Sortzaileen I. Jardunaldia aurrera eramán du lhitten elkarteak, Antonio Mercero aretoan. Herritarren jakin-mina piztu du ekimenak eta dozenaka bertaratu dira gunera. Hizlariek esan dutena entzuteaz gain aukera izan dute hausnarketak plazaratzeko

Iñigo Gonzalez Sarobe

Orekari eta funanbulista guztiak ez dira zirku ikuskizunetan jarduten. Are, akrobata eta ekilibrista gehienak herritar xumeak dira, egunero ikusi ditza-kegunak kalean. Zeharkatuko dute zuzen zebra bidea, ez dute oreka galduko espaloia igotze-rakoan, baina euren egunero-koetan denetariko akrobaziak egin behar izaten dituzte bizi-tzekin aurrera egiteko. Horie-tako batzuk herritarrek, emakumeak eta sortzaileak dira. lhitten elkarteak bost gonbidatu ditu Antonio Mercero areto-ra: Aintzane Usandizaga, Bea Egizabal, Nora Izagirre, Ainhoa Negueruela eta Karmele Salsamendi. lhitteneko kide Idoia Garzesek gidatu du solasaldia.

"Nola definitzen duzue zuen burua?" galdetu die, hasteko. "Gatazka eragin dit beti galdera

horrek eta ez bakarrik sorkuntzaren alorrean. Gure burua aurkezten dugunetan zer esaten dugu, zertan lan egiten dugun? Horrek definitzen gaitu? Bestalde, noiz bilakatzen zara idazle? Egunkarian ateratzen zarenean, liburu bat argitaratze duzunean...? Gazteagoengandik ikasten ari naiz, indar gehiagorekin kontaktzen dituzte gauza hauek. Idaztea gustatzen zaidala esaten dut nik", hausnartu du Usandizagak. Egizabal: "Nola identifikatu nire burua, zer naizen, non nagoen edo nengoan... Esango nuke istorio kontalari

USANDIZAGA: "GURE BURUA AURKEZTEN DUGUNETAN ZER ESATEN DUGU, ZERTAN LAN EGITEN DUGUN?"

komikoa naizela; nire kasuan, sortzea da kaosa ordenatzeko behar bat". Moda diseinatzaile, musikari, irakasle... Zeregin ugaritan aritu da Izagirre eta kontatu du "bizitzak jarri dizkion erroñkei" aurre egiten ari dela. Gaur egun hezkuntzan ari da lanean baina sorkuntza ez du alboratu: "Nire barrua ulertzeko eta hor dagoena ateratzeko modu bat da".

Arkitektura "kasualitatez" ikasi zuen Negueruelak eta bere "pasio" bihurtu da. Baserriak zaharberritzen ditu: "Nirea da agian prozesu solidoena, erakina badago jada eta jabeek berri nahi dutenean jotzen dute nigana. Azken 50 urteetan etxabeen erdiak-edo desagerrarazi ditugu, bereziki arduratzen nauen gai bat da". Estudio propio bat du. Salsamendik, berriz, denda bat du, Uistin kaleko Koöl

Studio, eta "diseinatzaile eta sortzaile gisa" definitzen du bere burua. Hamar bat urte daramatza moda jasangarriaren egitasmoan lanean eta aipatu saltoki hori beste emakume askorekin partekatzen du, ikastaroak-eta aurrera eramanda.

Afizioa edo ofizioa; oreka

lhittenek mahai ingurua iragaritzeko erabili duen kartelean neska bat ikus daiteke, oreka mantentzeko makil zuri bat eusten bi besoekin eta bihurtuneak dituen korda baten gainean ibiltzen. Horrekin identifikatzen ote dira bost hizlariek? Salsamendik baietz esan du, "sokari eusten" aritzen dela egunak joan eta egunak etorri: "Lan finko bat utzi nuen nire proiektuan buru-belarri aritzeko eta sentitzen ditut beldurrak, ea eroriko ote naizen eta horrelakoak. Begiak itxita lan egitearen sentsazioa izaten dut askotan, egitasmo bat denboraz planifikatu arren ez dakidalako jendeari gustatuko zaion ala ez eta emaitzak ez ditudalako berehalakoan ikusiko".

Sortzea afizio edo ofizio izatearen arteko oreka mantentzea ez da erraza, bost sortzaileek nabarmendu dutenez. Izagirre: "Moda enpresa batean lan egin nuen diseinatzaile gisa eta ez nintzen zoriontsu. Orain, ordea, irakaslea naiz eta ahal dudanean sortu; zoriontsuagoa naiz". Egizabalen ustetan "oso polita" da afizio izatearen kontzeptua baina uste du horrek ogibide izaera kentzen diola alor artistikoari. "Borroka hori izaten dugu: ez saldu zure artea, ez izan mertzenario bat, dirua ateratzen badu ez da horren alternatiboa izango... Etika politikoa mantendu bai, jakina, baina bizi ere egin behar dugu, familia mantendu, hipoteka ordaindu, eta abar". Negueruela "gutziz identifikatuta" sentitzen da "oreka mantentzeko saiakera etengabearekin", bera delako enpresa eta nagusiren baten menpe egon ez arren oporrak hartzerakoan lana eramaten du berarekin, ordu mordo

BOST SORTZAILEEK BALIOAN JARRI DUTE HERRITARREK HERRIARENTZAKO EGITEN DUTEN GUZTIA

bat sartzen ditu, arkitektoek hamar urterako duten ardura zibilaren "pisu handia" bizkarean eramán...

Amore eman ala ez

Sorkuntzan funanbulista izateaz nekatuta, amore ematea pasa ote zaie burutik gonbidatuei? Bakoitzak beretik erantzun du. Egizabalek, esaterako, adierazi du berarentzat hori ez dela aukera bat. "Iruditzen zait adinak baduela pisua horretan, ez da gauza bera horrelakoak planteatzea 30 urte dituzunean ala ez dituzunean, beraz, beti aurrera, ez dakit nola, baina beti aurrera". Izagirrek, aldiz, moda diseinatzaile izateari uzteko beharra sentitu zuela kontatu du: "Edo hori erabakitzen nuen, edo krisi egoerak jango gintuen ingurukoak eta ni. Utzi nuenean atsedean hartu nuen eta gainera sentitzen dut bete ditudala nituen amets guztiak. Hala izan ez balitz eta kezka edo zerbait egin gabe utzi izan banu, agian...". Usandizagak ez du inoiz sentitu sortzeari utzi behar izatea, baina etsipena eragin dio lan hori partekatze prozesuak, "molde eta modu jakin batzuetan kokatu beharrak".

Mahai inguruan jorratu duten beste gaietako bat izan da gainerako sortzaileekiko duten iritzia, ea lehiakide gisa ikusten dituzten ala ez. Usandizagaren aburuz, merkatuak eta erakundeek sistema hori sustatzen dute: "Beka sistemetan, esaterako, ikusten dut lehiazteko politika: bati ematen diote dirua eta gainerakoei ezer ez, beraz, hori sustatzen ari dira".

Jarraian, honakoa galdetu die moderatzaileak ez soilik gonbidatuei, baita parean zeuden ikus-entzuleei ere: "Zer nota jarriko diogu Lasarte-Oriako bizitza kulturalari?". Zerbaki zehatzik inork bota ez badu ere, gogoeta aberasgarriak trukatu dituzte. Esaterako, balioan jarri dute herritarrek herriarentzako egiten duten eta antolatzen duten gutzia, "udalak jarritako oztupoen gaintik" askotan. "Ez dago plangintza kulturalik; gaztetxoen-tzat, adibidez, zer dago? Arazoa udaletxea da. Ez naiz pertsonalki ari e, ni ez naiz kezkatzen deitzen nautelako eta ongi tratatua sentitzen naizelako, herri mailako kontua da", adierazi du Egizabalek.

Arraun Lagunak, Euskadiko txapeldun

San Pedro egunean, hilaren 29an, Liga hasi baino lehen, motorrak berotzeko Lekeitioko ikurriña zein Euskadiko txapelketa lehiatu dira. Bietan herritarren ontziki izan dira garaile; Hondarribia Bertako Igoegailuak eta Donostia Arraun Lagunak

Txintxarri

Itsaso zakarrarekin borrokan ibili ziren hilaren 9an Donostiako badian Euskadiko txapelketan lehiatu ziren ontzikiak. Erlojupeko proba izan zen eta emakumezkoen txandan Aiora Belartietak eta Nahia Goenaga herritarrek kide dituen Donostia Arraun Lagunak nagusi izan zen.

Lugañenez gain, Orio, Donostiarra, Kaiku, Zumaia, Tolosaldea, Ondarroa eta Deusto Bilbao izan ziren lehian.

Donostiarrak azkenak izan ziren irteera puntuan eta olatu handiei aurre eginez, estropadan zeharreko ezbeharrei konponbidea bilatzeko ohituak daudela erakutsi zuten; bi arraun puskatu zitzaizkien. Hala ere, Lugañene azkarrena izan zen zabiogan eta helmugan, 8.28 eta 14.25,49, hurrenez hurren.

Hemezortzi segundo gehiago egin zituen Orio Orialkik (14.43,66) baina Ondarroa zein Tolosaldearen antzera hamar segundoko zigorra jaso zuten, behar baino aurrerago hasteagatik; itsasoak ez zuen ontziki



Donostia Arraun Lagunak Euskadiko txapelketako garaikurrekin. IÑAKI GABARAIN

geldi egotea ahalbidetzen. Ondorioz, azken denbora 14.53,66koa izan zen. Eta minutu bat baino gehiagoko aldearekin Donostiarra izan zen hirugarren (15.26,39).

Hondarribiak, Lekeition

Egun bat lehenago, trainerek Lekeition (Bizkaia) izan zuten hitzordua, Lekeitioko ikurrina.

Emakumezkoen txandan lehia estua izan zen Intza Fernandez herritarren Hondarribia Bertako igogailuak eta Zumaiaren artean. Azken metroetan ahalegin handia egin zuen Ama Guadalupekoak eta lehen izan zen helmugan (11.17), ikurrina bereganatuz; 53 ehunekotara iritsi ziren zumaiarrak.

Furundarena eta Igarritz, Gipuzkoako txapeldun

Lasarte-Oriako atletak ederki lehiatu dira Gipuzkoako txapelketan. Bost ordezkari podiumera igo dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak maila ederra erakutsi zuten hilaren 8an eta 9an lehiatu den absolutu mailako Gipuzkoako txapelketan. Eguraldia lagun izan ez arren, hainbat izan ziren finaletan parte hartu zuten herritarrek eta bostek –Mari Carmen Olaso, Atletico San Sebastianeko Nerea Eugi eta Ostadar SKTko Oihana Igarritz, Oinatz Almagro eta Naroa Furundarena– podiumera igotzea lortu zuten, baita 18 urtez azpiko Espainiako txapelketarako gutxieneko bat ere.



Almagro, podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

Igarritz disko jaurtiketako Gipuzkoako txapeldun berria da,

33,50 metroko markarekin. Furundarenak ere urrezko domina jantzi zuen jauzi hirukoitzeko proban 12,86 metroko jauziarekin.

Proba horretan bertan, Oinatz Almagrok bigarren postua eskuratu zuen; 13,71 metrora iritsi zen gaztea. Talde urdin-beltzeko kidea Malagan jokatu den 18 urtez azpiko lehiarako txartela eskuratu zuen eta absolutu mailako Espainiako txapelketako gutxienekotik zazpi zentimetrora geratu zen.

Olaso eta Eugi herritarrek, aldiz, brontzeko domina jantzi zuten. Olaso 3.000 m. martxa proban lehiatu zen (23.19,07) eta Eugi, aldiz, 200 m. lasterketan.

Gainera, hilaren 15ean eta 16an, egoera onean daudela baieztatzeko hitzordu berria izango dute herriko atletak; Euskadiko txapelketari egingo diote aurre, Durangon.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

JOSE MARTIJA TXAPELKETA

Los Chavales de Martija erakundeak antolatuta, VII. Jose Martija txapelketa jokatu da. Hamabi talde lehiatuko dira.

Larunbata. Michelin kirol gunea.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXA., EM. INF. 1/2

Alde Zaharra- Intza (Iparragirre)

Ostirala. 19:30. Egia, Donostian.

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Lasarte-Oriako pilotari gazteek San Pedro Jailetako 30. esku pilota txapelketako neurketak lehiatuko dituzte.

Larunbata eta igandea. Goiza. Loidibarren pilotalekuan.

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTo alebin mailako igerilariek Adinen arteko Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata eta igandea. Usabal kirol. Tolosan.

Buruntzaldea IKTo infanti mailako gazteek Udako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Usabal kirol. Tolosan.

GIMNASTIKA

ERAKUSTALDIA

LOKEko gimnastek denboraldi amaierako erakustaldia egingo dute.

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

ATLETISMOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Herriko atletak absolutu mailako

Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Durango, Bizkaian.

AUTOMOBILISMOA

ARINSAL IGOERA

Aitor Manso gidariak Espainiako Mendi Igoeren txapelketako Arinsal igoera proban parte hartuko du.

Larunbata eta igandea. Andorran.

GOILURRAK RALLYA

Pablo Muga gidaria V. Goilurak rallyan lehiatuko da.

Larunbata eta igandea. Lazkaon.

ARRAUNA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Herritarrek kide dituzten Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako igogailuak Espainiako txapelketari aurre egingo diote.

Larunbata eta igandea. Kontzako badia, Donostian.

TXIRRINDULARITZA

CIRCUITO MONTAÑES

Caja Rural-Alea taldeko Beñat Carbayedak herritarrek Circuito Montañes probako azken etapa du.

Ostirala. Poteijos, Kantabriar.

MENDI LASTERKETA

UXUE TRAIL

Herritar talde batek IV. Uxue Trail probari egingo dio aurre.

Igandea. 09:00. Usurbilen.

T2T PROBA

Herritar talde batek Tolosaldeko 2 Tontorrek mendi lasterketan parte hartuko du.

Igandea. 09:30. Tolosan.



A. MANSO

Manso, Ibardingo podiumean


Aitor Manso herritarra Ibardingo igoera proban lehiatu zen Beran (Nafarroa) hilaren 8an. Nafarroako Mendi Igoeren txapelketako proban bitan igo zen podiumera Lasarte-Oriako gidaria; sailkapen orokorrean bigarren izan zen (03,03), Arkaitz Ordokiren atzetik (02,58) eta 9. kategorian, aldiz, lehena.

Herritarrek azaldu digunez, pozik dago lortutako emaitzarekin. Hala ere, lasterketa zaila izan zela onartu du: "Ibilbideko lehen kilometroak lehorrak zeuden, baina azken hiru kilometroak bustiak. Ez genekien zein gurpilekin lehiatu, baina asmatu genuen eta berriro podiumean egon gara".

Igoera hori hurrengo asteburuan, hilaren 15ean eta 16an, Andorran lehiatuko duen Espainiako txapelketako lasterketarako baliagarria izan zaiela azpimarratu du: "Ibilgailuarekin proba batzuk egin ditugu eta pozik gaude lortutakoarekin".



Buruntzaldea IKTko bost kide izan ziren podiumean. KARMEN HERRERO/BURUNTZALDEA IKT



Lasarte-Oria Sariko serieetan lehia handia izan zen. TXINTXARRI

Etxeberria Lasarte-Oria Sarian gailendu da

Maialen Chourraut kiroldegia igerilariz bete da hilaren 8an. Buruntzaldea IKTk antolatutako Lasarte-Oria Saria. Pertsonen Saria lehiatu da. Maila kotuak izan gabe, egin dute igeri eta sailkapen orokorrean, igeriketa taldeko bost kide izan dira

Txintxarri

230 bat igerilari batu ziren hilaren 8an Maialen Chourraut igerilekuan. 33. Lasarte-Oria Saria. Pertsonen Saria lehiatu zen eta zortzi talde ezberdine-

tako –Hernani KE, Gaude, Elkar 64 Natation, Igartza IKE, Atletico San Sebastian, Amaya CD, Ordizia KE eta Buruntzaldea IKT– kirolariak aritu ziren herriko igerilekuan nor baino nor.

Saio hasieran momentu hunkigarria bizi izan zen. Igeriketa taldeko Itsaso Tolosa eta Borja Apeztegia entrenatzaileei omenaldia egin zieten taldeko kideek eta agurra dantzatu zitzaizkien.

bien azken urtea izan da prestatzaile modura.

Benjaminek izan ezik, igerilariak urte bakoitzeko aukera izan zuten. Igerilari gaztetxoek bakarrik egin zuten 50 m. edo 100 m. libre.

Sari ugari

2011-2015 urte bitarte jaiotakoek, urte bakoitzeko lehen hiru sailkatuek urrezko, zilarrezko edo brontzezko domina jaso zuten eta beste guztiei ere oroigarri gisa domina bana banatu zitzaizkien.

Infantil eta junior mailako kasuan, lehen hiru sailkatuek gain, laugarren postutik zortzigarrenean sailkatutakoek brontzezko oroigarri domina bana jaso zuten.

Eta horretaz gain, beste opari batzuk ere eraman zituzten, hala nola, goxoki poltsa bat eta *Tratu on bat* markako poltsak.

33. Lasarte-Oria Sariko sailkapen orokorrari dagokionez, finalerako FINA eta MULTIDISABILITY puntuen arabera, Garazi Etxeberria izan zen eta podiuma Buruntzaldea IKTko beste lau kideekin elkarbanatu zuten: Miren Sarobe, Iker Gorostegui, Iñaki Garcia eta Oihan Matute.

Saioari amaiera emateko, adin tarte bakoitzak Australiar proba egin zuten eta azken finalistek oroigarriak lortu zituzten.

Eskertza mezuak

Buruntzaldea IKT eskerrak eman nahi dizkie batetik Lasarte-Oria-ko Udalarari Tratu On Bat markaren babesa jaso duelako: "Ezinbestekoa izan da sari hau antolatzeak eragindako gastu ezberdinei aurre egiteko".

Eta bestetik txapelketa aurrera eramateko lan egin duten boluntarioei: "Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, haiek gabe ezinezkoa izango litzake-eta!".

Igeriketa taldeko haur eta gazte gehienek denboraldia amaitu dute, baina hilaren 15ean eta 16an, alebin eta infantilek Adinen arteko zein infantil mailako Udako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute Tolosan.

Herritarrak Gipuzkoako Open Sariko podiumetan

VII. Gipuzkoako Open Saria lehiatu zen hil honetako lehen asteburuan Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Lasarte-Oriako igerilariak ederki egin zuten igeri eta hainbat finalerako parte hartu zuten. Dominak ere jantzi zituzten, baita markak ondu ere. Esate baterako, Ainhoa Martinek 200 m. bular probako Euskadiko errekorra berri zuten.

Gipuzkoako igerilari onenak batu ziren Donostian. Horien artean izan ziren, Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin eta Buruntzaldea IKTko Miren Sarobe, Garazi Etxeberria, Iker Gorostegui, Ibon Elola, Mario Amantegi, Oihan Matute eta Iñaki Garcia.

Larunbat eta igande goizeko sailkapen probak gaituta, Martin ahizpak zein Buruntzaldea IKTko lau taldekide –Miren Sarobe, Garazi Etxeberria, Ibon Elola eta



Sarian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko kideak (ezker) eta Martin ahizpak podiumetan. BURUNTZALDEA IKT/GIF

Iñaki Garcia– finalerako lehiatu ziren eta emaitza ederrak eskuratu zituzten.

Martin eta Garcia, gorenean

Bidasoa XXI taldeko Martin ahizpak bost alditan igo ziren podiumera.

Ainhoa garaile izan zen 200 m. bular eta 200 m. lau estilo probetan eta Bidasoa XXI taldearekin zilarrezko domina eskuratu zuten 4x100 m. libre erreleboan. Leire, aldiz, txapelketa irabazi zuen bizkar erako bi probetan; 50 m. eta 100 m.

Buruntzaldea IKTko ordezkariek kasuan, Iñaki Garcia igeri egindako hiru probetan –100 m. eta 200 m. libre eta 50 m. bizkar– infantil mailako podiumeko maila gorenera igo zuten.

Oihan Matute ere lehiatutako bi probetan infantil kategoriako lehen postuetan izan zen; 400 m. libre proban txapeldun eta lau estiloetako 400 metroko proban, berriz, hirugarren izan zen. Eta Matutek Mario Amantegi izan zuen lagun 400 m. libreko podiumean; Amantegik zilarrezko domina jantzi zuten.

Horiez gain, Garazi Etxeberria ez zen podiumera igo, baina 200 m. estilo probako finalean maila absolutuko seigarren sailkatu zen.

Markei dagokionez, Ainhoa Martinek 200 m. bular proban bere marka ondu eta Euskadiko Errekor berri ezarri zuten: 02.29.80. Buruntzaldea IKTko kideek, aldiz, hamasei marka pertsonal berri egin zituzten.



Ezkerrean, Martutene KEk eraman zuen garaikurra. Eskuinean, neurketa bateko irudia. TXINTXARRI

Martutene, Emakumeen I. Txapelketako garaile

Texas Lasartearra Emakumeen I. Txapelketa lehiatu dute. Hamar talde borrokatu dira arratsaldeko finalean egoteko. Martutenek eraman du sari nagusia Sanse gaindituta. Ekimen solidarioa ere izan da, diru bilketa eta zozketa egin dute Izan Iñurriren alde

Txintxarri

Michelin kirol gunean zortzi klubetako hamar talde lehiatu ziren Emakumezkoen I. txapelketan.

Gogotsu aritu ziren futbol jokalariek. Goizean, ligaxka egin zuten eta hamar taldeek elkarren kontra jokatu zuten: Texas Lasar-

tearra, Orioko, Sanse, Intxaurdi A eta B, Aierru, Touring, Martutene, eta Aiztondo A eta B. Bazkaltzeko tartearren ondoren, kanporaketei



Open torneoan parte hartu zuten LOKEko gimnastak eta entrenatzaileak. LOKE GIMNASTIKA

LOKEko gimnastek lan ederra egin dute Open Torneoan

Kirol elkarteko lau kide podiumera igo dira. Hilaren 15ean, denboraldi amaierako erakustaldia egingo du taldeak

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek ederki eman diote amaiera txapelketa denboraldiari. Open Torneoa lehiatu zuten herriko elkarteko jubenil eta kadete mailako gimnastek, Gasteizen (Araba). Guztiak lehen hamarren artean

sailkatu ziren eta lau gimnastek domina jantzi zuten.

Maila handiko torneoan barkarka egin zuten lan herriko ordezkariak tresna ezberdinekin: jubenilak xingola edo pilotarekin eta kadeteak uztaiarekin. Herriko taldeko kide guztiak ederki jardun ziren eta lau kide

gainera podiumera igo ziren. Xingola lana eginez Erika Tejero bigarren izan zen eta Mirian Prieto hirugarren. Saioa Boyero pilotarekin hirugarren izan zen eta Maitane Sarmientok ere postu bera lortu zuen pilotako saioan.

Baina lehiaketa horrekin ez diote ikasturteari agur esan oraindik gimnastek. Hilaren 15ean, LOKEko gimnastika sailko kide guztiak batuko dira, 16:00etan, Maialen Chourraut kiroldegian eta denboraldi amaierako erakustaldia eskainiko dute.

Jose Martija txapelketa, hilaren 15ean

Emakumezkoen lehiak alebin lehen mailako haurren F8 txapelketari emango dio lekukoa. Los Chavales de Martija elkarteak antolatuta, Jose Martija VII. Futbol txapelketa jokatu da hilaren 15ean Michelin kirol gunean.

Hamabi talde batuko dira zelaian euren onena emateko: Ostadar SKT, Texas Lasartearra CF, Racing Santander, SD Eibar, Real Sociedad, Martutene KE, Añorga KKE, CD Vasconia, Irungo Real Union, Billabona FKE eta Antiguoko KE. Goizean 10:00etan hasiko da multzoko lehia eta arratsaldean, Champions League eta Europa League faseak jokatu dira. Txapelketa hasi baino lehen, Mikel Etxarri herritarra omentuko dute bere ibilbidearengatik.

Michelin gunera hurbiltzen diren zaletuek ere izango dute zer irabazi, hainbat opariren zozketa ere egingo dute eta.

ekin zieten, goizeko emaitzen arabera gurutzaketak eginez.

Areto futboleko zelaian egin zuten sari banaketa. Jokalariak elkarren aurrean jarri ziren taldeei pasilloa egiteko.

Lehenik, hiru lehenen artean sailkatu ez ziren gainerako bost taldeei oroigarri bana eman zieten. Ondoren, postu bakoitzeko jokalaririk onenen txanda izan zen eta amaitzeko hiru kopak banatu ziztuzten. Martuteneko neskek poztuzten jaso zuten garaile kopa. Txapelaldunordea Sanse izan zen, eta Orioko, hirugarren.

Angel Rosak Texaseko lehendakariak azaldu zuenez, emakumezko futbola "ikusgarri" egiteko asmoz abian jarri dute txapelketa, neskek benetako aukera izan dezaten futboleko aritzeko. Kirolaz harago, "gizarteari itzuli nahi" diotela ere zehaztu zuen. Horregatik, txapelketa solidarioa izan da, eta zozketa ere antolatu dute Izan Iñurri elkartearentzat dirua biltzeko. Zori oneko zenbakiak honakoak izan dira: 95, 959, 367, 174, 883, 1.061, 1.563.

Halaber, Aterpeak eta herriko 80 establezimenduk emandako babesa ere eskertu zuen Rosak.

Lehiaketa ederrak, udako denboraldiko ahobizarra kentzeko

Hipodromoko udako denboraldia lehia interesgarriekin hasi da. Uztailaren 7an izango da hurrengo jardunaldia

Txintxarri

Udako denboraldiko lehen lasterketak lehiatu ziren hilaren 6an Donostiako Hipodromoan. Zaldi lasterketen zaletuek goizeko jardunaldi ederraz gozatu zuten, uztailako igandetako arratsaldean aurrekari gisa.

Denboraldia HH Sheikha Fatiman Bint Mubarak Cup sariak estreinatu zuen; Alejandro Gutierrez Val eta *Ichan de Bozouls* bikoak izan zen irabazle.

Bigarren probako azken metroak zirrargarriak izan ziren. Hiru lehiakide gogor borrokatu ziren eta azkenean, Denisa Sikorovak eta Anasita moxalak barruko erreietik iJockey saria eraman zuten.

Zaldilasterketak.eus sarian ere lehia handia izan zen. Jaime Gelabert eta *Lore* bikoak aurkariak utzitako hutsune bat baliatu eta garaipena erdietsi zuen. Gelaber-



Jardunaldiko lehiaketa bat. DABID ARGINDAR

tek, gainera, jardunaldiko laugarren lasterketan Todosurf saria eskuratu zuen *Upsilon* gidatuta eta eguna ongi amaitzeko A Galopar saria ere lortu zuen *One More Night* behorrarekin.

Lehen jardunaldi honen ostean, hipodromoko lehiak hilabeteko etena izango dute. Hurrengo jardunaldia uztailaren 7an, igandea ere, jokatu da 17:30etan.



Txapelketako partaide eta antolatzaileek talde argazkia atera zuten finalaren ostean. TXINTXARRI

Biziberritu egin dute Mirentxuko Trinketea

Herriko gazte talde batek frontenis txapelketa antolatu du kirol azpiegitura horri bizia emateko. Hamasei bikotek parte hartu dute; Iker Artetxek eta Mikel Gonzalezek jantzi dituzte txapelak. Antolatzaileak oso pozik daude ekitaldiak izan duen harrerarekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

Denbora asko zeraman Mirentxuko Trinketeak kirol arrazoiengatik albiste izan gabe. Hilaren 8an gertatu zen hori, herriko gazte talde batek erraketekin kendu baitzituen azpiegitura horretako armiarma sareak. Kantxa biziberritzeko asmoz, gomazko pilotazko fron-

tenis txapelketa bat antolatzea bururatu zitzaion eta asmo hori ahoz aho zabaltzeak izan zuen eragina, hamasei bikotek izena eman baitzuten.

Final zortzirenak eta final laurdenak jokatu zituzten bazkaltzeko etenaldia egin aurretik. Kantxa barruan topera ari ziren jokalarien lana saritu zuten

ikusleek eta animoak ematen jarraitzeko eztarria freskatzea aukeratu zuten askok, garagardoa edota kalimotxo eskatuta. Lehiaketaren babesle izan zen Avenida taberna-jatetxean egin zuten etenaldia antolatzaile taldeak eta zenbait bikotek.

Arratsaldeko lauetan hasi ziren semifinalak: lehenengo, Arruti



Herriar ugari bertaratu ziren Trinketera egun osoan zehar. TXINTXARRI




Jokalariek dena eman zuten kantxan, baina hiru bikotek izan zuten saria. TXINTXARRI

eta Santxi, Bardaji eta Galarragaren kontra; ondoren, Artetxe eta Mikel, Sarasua eta Huegunen aurka. Arerioak baino finago aritu ziren Arruti-Santxi eta Artetxe-Mikel, finalerako aise sailkatuta. 22-13 eta 22-7 irabazi zituzten euren neurketak, hurrenez hurren. Txapelketak ordura arte nahikoa emozio izan ez bazuen, gatz eta piper pixka bat gehiago gehitu zion txapelak jantzeko borrokatuko zuten lau jokalaririk kuadrilla berekoak izateak.

Finalera fisikoki osoago iritsi zirela baliatu zuten Arrutik eta Santxik markagailuan aurrea

hartzeko, 4-9. Gero, ordea, neurketa erabat irauli zuten Artetxek eta Mikelek, bederatzi tanto segidan eginda. Bazirudien erabakita zegoela partida 16-10ekoa ezarri zutenean, baina euren larrua garesti salduko zutela erakutsi zuten aurkariak eta bitantora gerturatu ziren. Boxeolariak bailiran, elkarri kolpe batzuk eman zizkieten, txapeldun izango ziren Artetxe eta Mikelek ezker gantxo erabakigarria jo zuten arte, 22-16.

Egun berezi hori biribiltzeko Intza elkartean afaldu zuten jokalariei eta antolatzaileek.



Ibai Izagirre, Maider Lizarraga eta Aimar Sukunza, Hondarribiko proban. ZUMEATARRA KE

Herriko triatletak txapelketaz txapelketa ari dira

Duatloian zein triatloian lehia ezberdinetan parte hartu dute herriko ordezkariak eta podiumera ere igo dira

Txintxarri

Herriko duatloi eta triatloi zaletuak Zarautz, Getaria, Murgia (Araba), Zizurkil, Hondarribia edo Gasteiz aldean lehiatu dira. Lasarte-Oria-

ko ordezkariaren batek probaren bat utzi behar izan badu ere, gainerakoek ederki egin dute lan apiril, maiatz eta ekainean jokatu diren sprint edo distantzia erdiko

lehiaketetan eta Zumeatarra taldeko kideak euren mailako podiumean izan dira.

Hilaren 8an, Zarautzeko Triatloia lehiatu zen. Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, Ibai Izagirre (04.52.02) eta Maider Lizarraga (5.47.01) herritarrek parte hartu zuten; Izagirrek 23 urtez azpiko hirugarren postua eskuratu zuen.

Hondarribiko Sprint Triatloian, maiatzaren 11n, Lizarragak (01.34.15) eta taldekide Aimar Sukunzak (01.09.38) bigarren postuan sailkatu ziren, beterrano 1 mailan eta 23 urtez azpikoan, hurrenez hurren. Ibai eta Urko Izagirre ere bertan izan ziren lehian.

Eta astebete geroago, Getariako Triatloian ere 23 urtez azpiko hirugarren amaitu zuen Sukunzak. Trinkoko Haitz Mitxelena eta Pablo Muñoz kideek ere amaitu zuten proba.



TXINTXARRI

Dantzan denboraldiari agur

Eguzki klubeko taldeek denboraldi amaiera festa ederra egin zuten Lodibarren pilotalekuan. Jubenilen Liga eta talde ezberdinen lana ospatzeko gustu guztietarako musika jaialdiaz gozatu zuten pilotalekura hurbildu ziren jokalariei, senitarteko eta lagunak. Musikaz gain, zezensuzkoarekin ere lasterketa ederrak egin zituzten.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Iker
Zorionak, Iker!! Non geratu da aingeru aurpegi hori? Hitz eman zenigun hamaiketako nahi dugu! Ondo ospatu asteburuan, Deabrua!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZTA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	DE URUE
LARUNBATA, 15	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 16	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 17	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 18	LASA
ASTEAZKENA, 19	GIL
OSTEGUNA, 20	ACHA-ORBEA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Sasoeta-Zumaburuko Eskola Kirolan izena ematea

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Eskola Kirola ekimeneko izen ematea hilaren 16an amaituko da. Inskripzioa guraso elkarteak familiei bidali dien esteka baten bidez egingo da. Ttakun Kultur Elkarteak kudeatuko ditu izen emateak eta prozesuko edozein zalantzarik izanez gero, 695 78 53 94 telefono zenbakira deitu edo eskolakirola@ttakun.eus helbidera mezua idatzi dezake gurasoek.

Ostadar SKTn inkribatzeko azken egunak

Kirol egokitua eta inklusiboa, saskibaloia, boelbola, atletismoa, erregbia edo futbola. Ostadar SKTko kirol sail baten parte izan nahi duten herritarrek elkarte-ko webgunean (www.ostadarskt.eus) izena eman dezakete hilaren 16ra arte. Kirol elkartearen bulegoan (Geltoki kalea, 4) argituko dira zalantza guztiak.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA
33 urteko gizona lan bila dabil. Taberna, sukaldean, garbiketa

lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozein lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informeak ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, trinia edo ekonomiketarako. Eskatu ostean exera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau aste argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaitze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez eta Ander Hazas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Ekimena

Sanpedroetako aurrekari gisa, Biyak Bat egoitzako kideak mahai jokoetan arituko dira.

Biyak Bat egoitza, 16:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi eskolako ikasleek ikasturtean zehar sortu dituzten lanak ikusgai jarriko dituzte. Hilaren 21era arte, ostirala, izango da horiek ikustera joateko aukera.

Mercero gunea, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Bertsopotea

Transmaribollo kolektiboak bertsopotea transfeminista iragarri du. Ttakunenea elkartetik abiatuko da ekimena, eta elkartez elkarrekin ibiliko dira.

Ttakuneneatik, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Topaketa

Scooter Club Euskadi elkarteak aurrera eramango duen motorren rallyaren barruan, honako egutara iragarri dute egun horretarako:

19:00etan, parte hartzaileen iritsiera eta izen ematea.

21:00etan, pintxo-afaria Santxo tabernan.

22:30ean, gau ibilbidea herrian barrena.

23:00etan, festa Buenetxea kafetegitabernan.

Donostia etorbidea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Emanaldia

Alboka abesbatzak kontzertua emango du Brigitarren komentuan.

Brigitarren komentua, 19:30ean.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Topaketa

Scooter Club Euskadi elkarteak aurrera eramango duen motorren rallyaren barruan, honako egutara iragarri dute egun honetarako:

10:00etan, erakusketa Okendo plazan.

11:00etan, barrikotea eta pintxoak Tiburtzio Artizar tabernan.

12:00etan, ibilbide luzea.

15:00etan, bazkaria.

18:30ean, erakusketa eta jokoak Andapa kalean.

21:30ean, pintxo-afaria.



LASARTE-ORIA Topaketa

Marka ospetsuenetako scooter gidarien topaleku izango da Lasarte-Oria hilaren 14tik 16ra. Motorren rallya antolatzen duen Scooter Club Euskadi eragileak egitarau erakargarria prestatu du Lasarte-Oriako Udalaren eta herriko elkarte nahiz dendariren laguntzarekin.

Hilaren 14, 15 eta 16an.

22:00etan, festa Buenetxea kafetegitabernan.

Herriko hainbat lekutan.

LASARTE-ORIA Dantza

Erketz Euskal Dantza Taldeak emanaldi koloretsu bezain ederra eskainiko du.

Okendo plaza, 19:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Topaketa

Scooter Club Euskadi elkarteak aurrera eramango duen motorren rallyaren barruan, honako egutara iragarri dute egun honetarako:

11:15ean, hamaiketako Oria Txiki tabernan.

12:00etan, ibilbide laburra Oria auzoan barrena.

12:30ean, bermuta Arkupe tabernan.

14:30ean, pintxo-bazkaria Arkupe tabernan.

18:30ean, erakusketa eta jokoak Andapa kalean.

Herriko hainbat lekutan.

ASTELEHENEA 17

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek ikasturtean zehar ikastitakoa erakutsiko dizkiete bertaraten diren ikus-entzuleei.

Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek ikasturtean zehar ikastitakoa erakutsiko dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Entsegua

Ekainaren 19ra arte, Erketz dantza taldeak asteazkeneko egingo ditu San Joan bezperako (ekainak 23) sokadantza prestatzeko saioak. Edonor joan daitekeela ohartarazi dute antolatzaileek.

Garaikoetxea-Landaberri, 20:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Ospakizuna

San Juan Egunaren bezperan sua egingo dute Andatza plazan. Ohi bezala, Erketz EDTko dantariak lagunduta, kalejiran abiatuko dira udal ordezkariak Kale Nagusitik. Andatza plazan, sua piztu aurretik Alboka abesbatzak eta Zero Settek akordeo orkestrak emanaldi bateratua eskainiko dute.

Kale Nagusitik Andatza plazara, 21:30ean.



Alboka koruaren artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

Albokaren emanaldia, komentuan

Alboka Abesbatzak kontzertua eskainiko du hilaren 14an, ostiralarekin; amtolatzaileek iragarri dute 19:30ean hasiko dela, Ama Brigidarren komentuan. Horrekin batera, aurrera eramango duten egitaraua ere jakinarazi dute; honako hau da: John Dowland-en *Come again* abestiarekin hasiko dute emanaldia, eta horren ostean, Malicorne-ren *Marion les roses* abestuko dute, eta Ramin Djawadi-ren *Saty a thousand years* izango da interpretatuko duten hirugarrena. Audrey Snyder-ek moldatutako *Durme-durme* Sefardi tradizionalarekin jarraituko dut emanaldiak, eta Miguel Maria Azpiatzuk moldatuak *Brodutzen-Godalet* herrikoia kantatuko dute gero.

Xabier Sarasolaren *Zure boza*, Javier Bustoren *Euskal jokoak* eta Imanol Larzabalen hiru abesti kantatuko dituzte ondoren.

Ohi bezala, Montse Latorre zuzendariak gidatuko du korua, eta Amaia Dorronsoro, Carolina Muñoz eta Ainara Aduriz arituko dira pianoan eta perkusioan, hurrenez hurren.

Horrez gain, aurten ere San Joan bezperako soka dantzan eta San Pedro eguneko mezan parte hartuko duela jakinarazi du.



Gogotik dantzatu dute Rocioko erromeria gerturatutakoek. TXINTXARRI

Ama Birjinaren omenez

Bi egunetan ospatu du aurten Semblante Andaluz elkarteak Rocioko erromeria. Ohi bezala, hegoaldeko doinuak eta dantzak nagusi izan dira, tamalez, latitude haietako eguraldia falta izan zaie. Euriak moldaketak eginarazi badizkie ere, ez du jaia zapuztu, eta gustu zein adin askotarako jarduerak aurrera eramango dituzte, hala nola, dantza erakustaldiak, herri bazkariak, buruhandi eta erraldoien kalejira, meza, erromeria, eta abar luze bat.

txintxarri



San Pedro Jaietako zenbaki bereziak ekainaren 21ean eta uztailaren 5ean

Deskontu
bereziak
herrikoentzat!

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66



CEPA LASARTE HHI

2024-2025 ikasturtea

MATRIKULA ZABALIK ekainaren 17tik 27ra eta irailaren 2tik 13ra

- **Hezkuntza orokorra**
(Irakurketa, idazketa, oinarrizko ingelesa, nutrizio osasuntsua, Historia...)
- **DBHko titulua**
- **Oinarrizko euskara**
- **Gaztelania atzerritarrentzat**
- **Irteera didaktikoak**



Deitu
hitzordua
eskatzeko!
943-37 64 43

Tel: 943-37 64 43 Beko kalea bidea 1, 3.a 20160 Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus epalasarate@gmail.com

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoa mugitu,
Gipuzkoa sentituz.

Batzen gaituenak, mugitzen gaitu.



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.
www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat

